

NEKAZARITZA EKOLOGIKOKO ELIKAGAIEN BANAKETA POLITIKAREN KUDEAKETA IRAUNKORRA: ADIERAZLE SISTEMA HOLISTIKO-AGROEKOLOGIKOAREN PROPOSAMENA

Tesiaren egilea: Mirene Begiristain Zubillaga

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Finantza Ekonomia II

Tesi-zuzendaria: Lucía Mediano Serrano eta Jon Landeta Rodríguez

Tesiaren laburpena:

Ikerketa honen helburu nagusia izan da nekazaritza ekologikoko elikagaien sektorean jarduten duten enpresa eta erakundeentzat nekazaritza ekologikoko elikagaien banaketa-politika modu iraunkorrean kudeatzeko lagungarriak izan daitezkeen irizpideak argitzea eta, ezagutza horretatik, kudeaketan sor daitezkeen eraginaren bitartez, nekazaritza-sektoreari eta gizarteari eskainitako balioa handitzea.

Horretarako, nekazaritza ekologikoko elikagaien banaketa-politikaren kudeaketaren iraunkortasuna (ekologikoa, ekonomikoa, soziala eta kulturala) baloratzeko adierazle holistiko-agroekologikoen proposamena garatu dugu.

Proposamena garatzearen arrazoi nagusiak hainbat izan dira: batetik, azken urteetan krisi ekologikoaren eta elikadura-istiluen testuinguruan, nekazaritza ekologikoaren eta agroekologiaren inguruan interesa hedatu egin da. Hala ere, egoera hori ez da eskaeran guztiz islatu, nagusiki elikagai ekologikoen irisgarritasun faltagatik, oztopo hori haren kontsumorako galga nagusitzat joz. Bestetik, nekazaritza ekologikoaren garapen iraunkorraren mesedetan, nekazaritza ekologikoko elikagaien marketin-kudeaketak dituen bereizgarriak identifikatzeko beharra dagoela uste dugu, bereziki haren banaketa-politikarena. Azkenik, ikerketa honekin, gaiaren inguruan dauden ikerketa zientifiko urriei ikuspegi berritzaile baten ekarpena egiten saiatu gara. Finean, ikerketak sektorearen ahalduntze-beharrari ekarpena egin diezaiokeela iruditzen zaigu.

Ikuspegi holistiko-agroekologikoaren logikari jarraituz, adierazle-sistemaren proposamena eraikitzeke prozesu kualitatiboa garatu da (*focus group* eta adituen panela) sektoreko eta akademiako eragile desberdinen parte-hartzearekin. Horrez gain, prozesuan deduzitutako proposizioak eta adierazle-sistema bera balioztatzeke, Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan barazki eta fruta ekologikoa komertzializatzen duten 40 esperientziak adierazle-sisteman lortutako emaitzak aztertu ditugu, bakoitzarekin izandako aurreko aurreko elkarriketa sakonen bitartez.

Ikerketaren ondorioz, nekazaritza ekologikoaren elikagaien testuinguruaren, marketinaren eta marketin-kudeaketaren bereizgarriak ikuspegi holistiko-agroekologikotik zehaztu ditugu. Gainera, banaketa-politikan hartzen diren erabakiak iraunkortasunaren dimentsioetan nola eragin eta erlazionatzen diren ikusi da eta, adierazle-sistemaren proposamenarekin, banaketa-eredu iraunkor baterako gakoak aurkeztu ditugu.